

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### EUSKO JAURLARITZA

#### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

##### Arabako Lurralde Ordezkaritza

#### **Medirest Social Residencias, SLU enpresaren greba amaierako akordioa**

Ebazpena, Lan eta Justizia saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkaria-rena. Honen bidez ebazten da Medirest Social Residencias, SLU -Ariznabarrako bizileku eta egu-neko zentroa enpresaren greba amaierako akordioaren erregistratu, gordailu eta argitaratzea.

#### AURREKARIAK

Lehenengoa. 2019ko martxoaren 1ean aurkeztu zen aipatutako greba amaierako akordioa Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan eta Gordailuan inskribatzeko.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Honako egintza emateko eskumena, lan agintaritza honi dagokio, apirila-ren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dioenarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboen erregis-troari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistro eta gordailuri buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2.1.d) artikuluan adierazitakoaren arabera, greba amaierako akordioak Erregistroan inskribatuko dira.

Hirugarrena. Inskribapen eskaera eta erantsitako dokumentazioa aztertu ondoren, eskatu-tako baldintzak biltzen dituela egiaztatu dugu, Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistro eta Gordailuari buruzko urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 9. Artikulua arabera.

Honen ondorioz,

#### EBATZI DUT

Lehenengoa. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan inskribatzeko eta gordailutzeko agintzea, eta erabakia aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 4a

*Arabako lurralde ordezkaria*  
**CARMEN DE CELIS CUEVAS**

### Bildutakoak

Alde batetik, NVB eta GLP, greba-batzordeko kideak. Eta, bestetik, SVV, Medirest Social Residencias SLU sozietatearen ordezkariak.

### Adierazten dute

Iragan 2018ko urriaren 22an, Vitoria-Gasteizko Lan Arloko 4. zenbakiko Epaitegiaren 271/18 epaia ezarri zen, 111/2018 zenbakiko epaitegiko autoak tartean, ACG, JES, CPGG eta GJLPk eskatutako dirua erreklamatzeko.

Ordainsarien gainean 2017ko uztailaren 14an sinatutako Ariznabarrako eguneko zentro eta egoitzako ituna aplikatzeko betebeharrak ezar dadila ebatzi zuen aipatu epaiak.

Egintza honen bidez, eta legitimazioa duten alderdiak direla elkarri aintzatetsi ondoren, honako hau sinatzea adostu dute:

### Akordioa

1. Akordio hau indarrean egongo da hura sinatzen den unetik aurrera, eta mugagabea izango da. Soldaten gainean ondoreak izango ditu, bestalde, 2017ko uztailaren 15eko subrogazioa-jarduera hasten denetik, 271/18 epaian ezarritakoari jarraikiz.

2. Ariznabarra egoitza eta eguneko zentroko ituna oso-osorik aplikatu dadila erabaki da, edo bere baldintzen gainean hobekuntzak ezartzen dituztenak ere ezarriko dira, zerbitzuaren berezko berezitasunei jarraikiz, agiri honen I. eranskinean jasotakoaren arabera.

3. Aldeen artean akordioa sinatu da, eta, horren arabera, Ariznabarra eguneko zentro eta egoitzako ituna aplikatuko da gaur egun Medirest Social Residencias SLU sozietateak kudeatzen duen sukaldaritza-zerbitzuko plantillara akordio honen datatik aurrera sartzen diren langile berrien artean, Ariznabarra egoitzan emandako zerbitzuaren arabera.

4. Akordio hau sinatzean, aurreikusitako greben deialdiak bertan behera geratuko dira.

5. Aldeek hitz ematen dute hiru hilean behin zentroko funtzionamenduari buruzko bilerak egingo dituztela, zentroak eta haren zerbitzuak funtzionamendu egokia dutela berreste aldera.

### I. eranskina

Ariznabarrako egoitza eta eguneko zentroko sukaldaritza-zerbitzuko langileen ituna

#### **Lehen a: adostu duten aldeak**

Honako itun hau Ariznabarra egoitzako sukaldaritza-zerbitzuaren enpresa esleipendunaren (Medirest Social Residencias SLU) ordezkariaren eta lantokiko langileen ordezkariaren artean sinatu da, eta bi aldeen arteko negoziazioak ixten dituen akordioa da. Horrenbestez, aldeek hitz ematen dute hemen jasotako baldintzak errespetatuko dituztela.

#### **Bigarrena: aplikazio-eremua**

Itun honek Medirest Social Residencias SLU sozietatekoak diren eta Ariznabarra egoitzako (Vitoria-Gasteizko Teodoro Gonzalez de Zárate kalea 14) sukaldaritza-zerbitzuan lan egiten duten langile guztiei eragiten die.

#### **Hirugarrena: indarraldia eta iraupena**

Itunak Ariznabarra egoitza eta eguneko zentroko itunak besteko indarraldia izango du, hau da, 2017ko uztailaren 15ean hasiko da indarrean, onesten den data edozein izanda ere.

Itun hau aplikatuko da gaur egun Medirest Social Residencias SLU sozietateak kudeatzen duen sukaldaritza-zerbitzuko plantillara akordio honen sinadura-datatik aurrera sartzen diren langile berrien artean, Ariznabarra egoitzan emandako zerbitzuaren arabera.

Ariznabarra egoitza eta eguneko zentroko etorkizuneko itunetan ezartzen diren baldintzak aplikatuko zaizkie Ariznabarra egoitza eta eguneko zentroko sukaldaritza-zerbitzuko langile guztiei.

#### **Laugarrena: ordezeko arauak**

Itun honetan araututako baldintzak indarrean egongo dira 2017ko uztailaren 15etik 2019ko abenduaren 31ra arte, menpeko pertsoneri arreta emateko eta horien autonomia pertsonalaren sustapena garatzeko zerbitzuen estatuko VII. esparru-akordioan edo hura garatu edo ordeztzen duen ondorengo arau konbentzionalean gai horietarako aurreikusitakoa ordezkatu, konpentsatu eta xurgatuz.

Itun honetan arautu ez diren alderdietarako, menpeko pertsoneri arreta emateko eta horien autonomia pertsonalaren sustapena garatzeko zerbitzuen estatuko VII. esparru-akordioan edo hura garatu edo ordezkatzeko duen ondorengo arauan xedatutakoa aplikatuko da, ondore guztietarako.

#### **Bosgarrena: soldata-igoerak**

2017. urterako soldataren gainean itunduko igoera ehuneko 1,6koa izango da.

Igoera hori I. eranskineko taulan agertzen da, itun honen indarraldiko urterako zenbatekoak adierazita.

2017. urterako, ezarritako igoerak oinarrizko soldataren eta osagarriaren gainean aplikatuko dira.

2018 eta 2019. urteetarako, estatuko KPIren igoera aplikatuko da oinarrizko soldataren eta osagarriaren gainean. Igoera horiek aplikatzeko, administrazio publikoak bete egin beharko ditu zentroko kudeaketa-kontratuan islatutako baldintzak, bai eta ordainketak ere, eta urtero estatuko KPIren arabera berrikusi beharko dira tarifak.

#### **Seigarrena: aldi baterako ezintasunagatiko osagarria**

Laneko istripuaren ziozko aldi baterako ezintasuna oinarrizko soldataren, antzinasunaren eta aparteko ordainsariaren hainbanaketaren ehuneko 100ean ordainduko da.

Urte natural bakoitzean gaixotasun komunaren ziozko aldi baterako lehen baja oinarrizko soldataren, antzinasunaren eta aparteko ordainsariaren hainbanaketaren ehuneko 75era arte osatuko da, lehen egunetik aurrera. Estatuko esparru-akordioan ezarritakoaren arabera ordainduko dira hurrengo bajak. Aldi baterako ezintasunaren aldiak ez du eraginik izango hiruhileko bakoitzeko egun bat libre hartzeko orduan. Langilea lanera itzultzen denean hartu ahalko da egun hori.

#### **Zazpigarrena: lanaldia**

Hitzarmenaren indarraldirako (2017, 2018 eta 2019) 1.690 ordu eraginkorreko urteko lanaldia ezarri da. Gehiegizko orduak lanaldi osoetan konpentsatuko dira, urte amaieran konpentsatzeke geratu daitekeen saldoa salbu, baldin eta lanaldi bat baino baxuagoa bada.

Honako hauek dira ordutegiak:

Goitzeko txanda: 07:30-15:00

Arratsaldeko txanda: 14:15-21:15

Kudeaketa indartzea: 09:00 - 15:00

Eguneko lanaldi etengabearen iraupena sei orduetik gorakoa denean, hamabost minutuko atsedenaldia egongo da, eta aldi hori benetan lan egindako denboratzat joko da, ondore guztietarako.

**Zortzigarrena: norberaren gauzak**

Urtean zehar libre hartzeko moduko 4 egun ezarriko dira, eta benetan lan egindako denboratzat joko dira, ondore guztietarako. Seihileko bakoitzean gehienez ere bi egun hartu ahaliko dira. 4 egun horiek hartzeko, gutxienez 7 egun lehenago egin beharko da eskaria (premiatzko kasuetan salbu, halakoetan 3 egun lehenago eskatuko baita), eta enpresak egun horiek ematea onartuko du. Salbuespena izango da justifikatutako antolakuntza-arrazoien ondorioz egun horiek ezin badira eskatutako datetan hartu. Hala gertatuz gero, langileari gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi beharko zaio (premiatzko kasuetan izan ezik).

Nolanahi ere, langileek 4 egun horiek hartu ahaliko dituzte, justifikatu behar izanik gabe, hurrengo urteko urtarrilaren 15a baino lehen.

4 egun horiek hartzeko, libre hartuko den egun bakoitzeko beharrezkoa izango da aurretik hiru hilabetez lan egin izana.

**Bederatzigarrena: libre hartzeko egunak eta lanaldiaren soberakinak**

Langileek libre hartzeko egunetako bi batu ahal izango dituzte beren oporretara edo egutegiko jaiegunetara, eta, horretarako, eskaria aurrerapen nahikoarekin egin beharko dute, zerbitzua era egokian kudeatu dadin.

**Hamargarrena: igandean edo jaiegunean lan egin izana ordaindu eta konpentsatzea**

I. eranskinean jasotako taulan ezarriko zenbatekoen arabera ordainduko dira, eta jaiegunetan egindako lana konpentsatzeko egungo sistemarekin jarraituko da, hau da, lan egindako lanaldiaren ehuneko 25 deskantsu gisa hartuko da beste egun batean.

**Hamaikagarrena: esangura bereziko jaiegunak**

I. eranskinean jasotako taulan ezarritako zenbatekoen arabera ordainduko dira.

**Hamabigarrena: antzinasunaren osagarria**

I. eranskineko soldata-taulan ezarritako zenbatekoa aplikatuko da enpresan lan egiten emandako hiru urte bakoitzeko. Egindako lanaldiarekiko proportzionala dena jasoko da.

**Hamahirugarrena: lizentzia ordainduak**

Langileak, aldeztu aurretik jakinarazita eta justifikatuta, lanera etorri gabe geratu ahal izango dira, lansaria jasotzeko eskubidearekin, honako arrazoi hauetako batengatik eta honako denbora honetarako:

A. 15 egun, ezkontzen bada.

B. 3 egun natural, jaiotza edo adopzioetan, edo ezkontidea edo legez ezarritako izatezko bikotekidea nahiz odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senidea hiltzeagatik, larriki gaixo egoteagatik edo ospitaleratzeagatik. Ospitaleratzea eragiten duten gaixotasun larrien kasuan, egunetan zatituta ere hartu ahaliko da libre dagokion denbora, ospitaleratzeak irauten duen aldian. Zatikatzeko horren egunak enpresari jakinarazi beharko zaizkio, eta langileak gertaera hori eragin zuen unearan hasieratik aldi hori etenik gabe hartzea eskatu izan balu izango lukeen izaera bera edukiko dute, hau da, lan-, atsedene- edo jai-egunak izango dira.

Langileak probintziatik kanpora edo probintzia bakarreko autonomia-erkidegotik kanpora joan beharra badu, eta egin beharreko distantzia 50 kilometrotik gorakoa bada edo benetan justifikatutako arrazoiak badira artean, epea beste 2 egunez luzatu ahal izango da. Egundako horiek luzatu egin ahaliko dira, ordaindu daitezkeen jaiegunak edo/eta oporrak kenduta, langileek hala eskatu ondoren.

Horren harira, hori eragin duen gertaera Espainiako lurraldetik kanpo jazo bada, gutxienez 1000 kilometroko distantzian, eta ukitua ezkontidea, legez ezarritako bikotekidea edo odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko lehen mailara arteko senidea bada, 5 baimen-egunak areagotu egingo dira, langileak eskatu ondoren; zehazki, beste 5 egun, baina azken horiek ez dira ordainduko. Kasu honetan, egindako lekualdaketa benetan egin dela frogatu beharko da.

C. 2 egun natural, ezkontideak edo legez ezarritako izatezko bikotekideak nahiz odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak ebakuntza kirurgiko bat jasaten duenean, ospitaleratu behar izanik gabe.

Etxean atsedean hartu beharra dagoen kasuetan, egunetan zatituta ere hartu ahalko da libre dagokion denbora eta hasiera malguagoa ezarri, etxeko atsedean irauten duen aldian. Zatikatzeko horren egunak enpresari jakinarazi beharko zaizkio, eta langileak gertaera hori eragin zuen unearen hasietatik aldi hori etenik gabe hartzea eskatu izan balu izango lukeen izaera bera edukiko dute, hau da, lan-, atsedean- edo jai-egunak izango dira.

Langileak probintziatik kanpora edo probintzia bakarreko autonomia-erkidegotik kanpora joan beharra badu, eta egin beharreko distantzia 50 kilometrotik gorakoa bada edo benetan justifikatutako arrazoiak badira artean, epea beste 2 egunez luzatu ahal izango da. Egun horiek luzatu egin ahalko dira, ordaindu daitezkeen jaiegunak edo/eta oporrak kenduta, langileek hala eskatu ondoren.

D. Egun bat, ohiko etxebizitza aldatzeko bada.

E. Nahitaezko betebeharrak publiko edo pertsonala betetzeko ezinbesteko denbora.

F. Titulu ofizial akademikoak edo profesionalak lortzeko ikasketak eginez gero azterketetara joateko beharrezkoak diren baimenei dagokienez, baimen horietatik azterketa baztertzailerei lotutakoak baino ordainduko ez direla hartuko da kontuan. Langileek baimen hori hartu ahalko dute azterketa egingo den egun naturalean, baldin eta egunez edo arratsaldean egiten badute lan. Langileek gabez egiten badute lan, azterketa aurreko gauean hartu ahalko dute baimena.

G. Haurdun dauden langileak lanera etorri gabe gera daitezke jaio aurreko azterketak eta erditzea prestatzeko azterketa teknikoak egitera joateko behar duten denboraz, eta kobratzeko eskubidea izango dute, enpresari alde aurretik jakinarazten badiote eta azterketa horiek ezinbestean lanaldiaren barruan egin behar direla justifikatzen badute.

H. Baimen-egun bat, ebakuntza anbulatorioagatik. Baimen hori hartzeko eskubidea eragiten duten ebakuntzak, zehazki, honako hauek dira:

- Kolonoskopia.
- Endoskopia.
- Histeroskopia.
- Zistoskopia.
- Kirurgia dermatologiko anbulatorioa.
- Gastroskopia.

Kasu guztietan, langileak, baimen hori hartzeko, behar bezala egiaztatu beharko du proba horiek egiteko anestesia- edo sedazio-teknikak erabiliko direla.

I. 13 ordu ordaindu Osasun Zerbitzu Publikoan kontsulta medikora edo mediku partikularra joateko, ordezko gisa. Izan ere, beti lehenetsiko da langileek aipatu kontsultetara joateko txanda alda dezatela.

Langileak era egokian eta sinesgarrian justifikatu beharko du ordu horiek erabili dituela.

13 ordu horien barruan sartu ahalko da langilearen odol-ahaidetasuneko lehen mailara arteko senideei kontsulta medikoetara laguntzeko denbora.

**Hamalagarrena: zentroko itunaren/hitzarmenaren baldintzak edo soldata ez aplikatzea**

Enpresak zentroko itun hau ez aplikatzea ezarri ahalko du, Langileen Estatutuaren 82.3 artikulua araberan. Enpresak ezingo ditu aldatu itun honetan jasotako baldintza kolektiboak, Langileen Estatutuaren 41. artikuluan ezarritakoaren araberan.

**2017ko soldata-etaulak**

KATEGORIA	OINARRIZKO SOLDATA	HILEKO SOLDATA	ANTZINATASUNA	JAIEGUN BEREZIA	LAN EGINDAKO JAIEGUNA	URTEKO SOLDATA
Sukaldaria	1,758.21 euro	1,758.21 euro	19 euro hirurteko bakoitzeko, 14 ordainsaritan	32.65 euro	19.30 euro	24,614.92 euro
Sukaldari-laguntzailea	1,548.70 euro	1,548.70 euro	19 euro hirurteko bakoitzeko, 14 ordainsaritan	29.59 euro	19.30 euro	21,681.79 euro

Lan egindako jaiegunaren ziozko plusaren prezioa igo egingo da kategoria guztietan, haren zati proportzionala era egokian sar dadin oporren aldirian.

Vitoria-Gasteiz 2018ko azaroaren 7a.